

UDAKO KOBRAKETA

2026ko UZTAILA

> Udako kobraketa berreskuratzeak 6.000 langile ingururi eragin die

- LABek 2025eko greba eta mobilizazioen ondorioz gehiengo zabalarekin batera (%80ko ordezkaritza) **sinatutako akordioari esker, ikasturte honetan ordezkapenak egin dituzten 6.000 langile inguruk uztailean zein abuztuan kobratu, kotizatu eta puntuatuko dute.**
- Bestalde, honako taula aplikatu da:

LAN EGINDAKO EGUNAK	OPOR EGUNAK	LAN EGINDAKO EGUNAK	OPOR EGUNAK
000-005	00	090-101	08
006-017	01	102-113	09
018-029	02	114-125	10
030-041	03	126-137	11
042-053	04	138-149	12
054-065	05	150-161	13
066-077	06	162-164	14
078-089	07	165etik aurrera	Uztaila-abuztua

Oharrak

- ✓ 2025eko akordioan ondorengoak dira bete beharreko **baldintzak uda osorik kobratu ahal izateko**: 165 egun lan egin, lanerako prest egon eta justifikatutako arrazoirik gabe esleipen bati uko egin ez izana
- ✓ **165 egun baino gutxiago** lan egin dutenek eta uztaila eta abuztuan beste kontraturik izango ez dutenek **langabezia eskatu** ahal izango dute.
- ✓ Hezkuntza Sailak egiten duen irakurketa murriztaileen ondorioz, **hainbat langile kaltetuak izan dira egoera desberdinengatik**. LAB egoera horiek konpontzeko lanean ari da.

> Era berean, hitzarmenean ordezeko langileei eragiten dieten honako neurri hauek ere jaso ziren:

- **Ordezkapenak lehen egunetik** betetzea.
- **Bitarteko irakasleen lizentziak eta baimenak karrerako funtzionarioenekin parekatzea** legeak ahalbidetzen duen kasu guztietan.
- **Bakantedunek karrerako funtzionarioen eskubide eta betebeharrak berdinak izatea**. Izaera hori irailaren 30a baino lehenago hartutako lanpostuek eta erretiroek izango dute.
- **Irailaren 1ean jabetza hartu ezin dutenei lanpostua azaroaren 30era arte gordetzea**.
- Aurreko bost urteetan ikasturte osoko plaza bat lortu dutenek **urte sabatikoa hartzeko aukera izatea**.
- **Jarduketa-plan espezifikoaren 55 urtetik gorako** irakasle ordezkoei.
- **Ordezko kontratua ez etetea** titularrak aldi baterako ezintasun egoeran jarraitzen duen bitartean.
- **Administrazioaren erruz** ordezkoa ikastetxera iristean titularra bertan badago, **kobratu eta puntuatzea**.